

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Nafarroako patxarana sustatzeko diru-laguntza eman du

*Produktu honen Kontseilu Arautzailearekin sinatutako hitzarmen batek 25.000 euroko laguntza arautzen du, 2011n materiala erosteko eta marketin ekintzak egiteko*

Martes, 16 de agosto de 2011

Lourde Goicoechea Zubelzuk zuzentzen duen Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak hitzarmena sinatu du [Nafarroako Patxarana Adierazpen Geografikoaren Kontseilu Arautzailearekin](#). Horren bidez, Foru Gobernuak 25.000 euroko diru-laguntza eman dio, materialetarako eta likore



Nafarroako patxarana sustatzeko hitzarmena. Ezkerretik eskuinera: Adrián Subía, Jesús Mª Echeverría, Goicoechea kontseilaria eta Mikel Berraondo.

hori sustatzeko eta merkadoteknia egiteko ekintzetarako. Patxarana, Foru Erkidegoan landutako basaranekin egin da.

Hitzarmena Jesús Mª Echeverría Azconak, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak eta Adrián Subía Sáinzek, Kontseilu Arautzaileko lehendakariak, sinatu dute. Ekitaldian Mikel Berraondo, Kontseilu Arautzaileko idazkaria, ere izan da.

Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzak Kontseilu Arautzaileak 2011rako egindako aurrekontuaren gastuaren % 50a estaltzen du. Aurrekontuaren sailak hauek dira: sustatzeko inprimatutako materialak berritzea; web-orria berritzea eta mantentzea; azalera handietako sustapen-ekintzak; Nafarroako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkartearekin egindako ekintzak eta koktel lehiaketa.

Nafarroako patxarana sustatzeko finantza-laguntza Nafarroako Nekazaritzarako Plan Estrategikoaren (2006) barruan kokatu behar da. Plan horretan, diruz lagundutako jarduerak jasotzen dira 2. lehentasunezko helburuan: "Nafarroako produktuetarako aurreikuspen eta negozio-baldintzak sortzea". Halaber, planaren 2. ardatz estrategikoan ere jasotzen da: "Foru Erkidegoan egindako nekazaritzako elikagaien transformazioa, komertzializazioa, kalitatea eta segurtasuna".

Nafarroako Patxarana izena 1988. urtean sortu zuten, Nafarroako

Gobernuaren Nekazaritza Kudeatzeko Institutu Teknikoaren laguntzaz, *Prunus Spinosa L* fruituaren barietate onak lortzeko helburuarekin. Fruitua basarana da (patxarana eta elorri beltza ere esaten zaio), Nafarroako patxarana egiteko lehengaia, hain zuzen. Basarana fruitu biribila da, beltz urdinxka, garratza, hur baten tamainakoa. Azala, mamia eta hezurra ditu, C bitamina, eta materia tanikoz, flobafenoz, azido malikoz (% 3 arte), azukreaz, pektinaz, gomaz, pigmentu gorri eta punizianinaz osatuta dago.

1997. urtean hasi ziren landatzen eta, gaur egun, 150 hektareako patxaran-plantazio baino gehiago dituzte. Guztiak Nafarroan daude, eta gehienak, erdialdean eta Erriberan. Landareak hiru urterekin heltzen dira, eta 15 urte inguruko bizitza dute.

Patxaranak lantzea Deituran izena emandako enpresentzat da onuragarria, fruituen kalitatea handia delako eta hornidura ziurra izateaz gain, azkar egiten delako. Labore erraza, errentagarria eta eskaera handikoa da, Kontseilu Arautzailearen web-orriak jakinarazi duenez. Gaur egun, likore horren zazpi marka komertzial daude atxikita deitura horri, iturri beraren arabera.